

BAKEBIDEAN

2010 9.Zbk

E
R
R
E
P
O
R
T
A
J
E
A
K

UDALERRIEN PRAKTIKA
ONEN JARDUNALDIAK:



BIZIKIDETZA
DEMOKRATIKOA
ETA GIZA ESKUBIDEEN
HEZKUNTZA

IRITZIAK



EZKER ABERTZALEAK HURRENGO
HATESKUNDEETAN PARTE
HARTZEKO BIDEARI EGIN DIO



EMAKUMEEN
AURKAKO
BORTXAKERIA
INDARKERIA SEXISTARI
AURRE EGITEKO
ALDARRIKAPENAK
ETA PROPOSAMENAK



NACHO EGUIZABAL

“HAY UN DISCURSO MUY
DESFAVORABLE RESPECTO
A LOS COLECTIVOS DE
PERSONAS INMIGRANTES”



GERMAN
ALONSO
CAMPOS

“EL AGUA NO TIENE PRECIO,
HOY POR HOY, PARECE
IMPOSIBLE PONÉRSELO”

E
L
K
A
R
R
I
Z
K
E
T
A
K

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA
GIZARTE GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



Leizaola
elkargoa



Azken urte hauetan Euskadin xenofobia hazi egin dela uste duzu?

Bai. Nire inguruan arrazakeriaren hazkundera nabaria da, zoritxarrez.



JOANA

Ez dut uste; gero eta immigrante gehiago daude, eta gizartean gero eta errazago egokitzen dira.



AINARA



ENEKO

Aldaketa ez da handia izan, xenofobia antzekoa zegoen duela urte batzuk eta orain.



IKER

Xenofobia egon badago, baina gaur egun garrantzi handiagoa ematen zaio gaiari.

Gure pertsonaia:

RIGOBERTA MENCHÚ

Indigenen eskubideen sustatzailea

Rigoberta Menchú giza eskubideen aldeko ekintzaile guatemalarra da. Hain zuzen ere, Menchú indigena Quiché-Maia da, Vicente Menchú Pérez eta Juana Tum Kótoja'-ren alaba. Aita, nekazaria eta euren etniaren eskubideen aldeko ekintzailea zen, baina 1981ean erail zuten. Urte hartan, Rigoberta erbesteratu egin zen.

Menchúren lana nabarmena da nazioartean eta bere herri inguruan, burrututako borroka sozialengatik.

Nobel saria

1992an, Rigobertak Argentina bisitatu zuen, eta, bertan, Adolfo Pérez Esquivel ezagutu zuen (Nobel sariaren irabazlea izan zena); horren ondorioz, Menchú sari ospetsua lortzeko lehenengo urratsak eman zituen,



Rigoberta Menchú, giza eskubideen aldeko ekintzaile guatemalarra

justizia sozialaren alde egindako lan guztiengatik eta kultura, arraza edo etnia desberdinen arteko adiskidantza aldarrikatzeagatik, betiere, indigenen giza eskubideak errespetatuz.

Nobel saria jaso zuenean, ekintzaile guatemalarrak herri indigenei ukatutako eskubide historikoak ere aldarrikatu

zituen. Horretaz gainera, Menchú emakumearen eta gizonen arteko berdintasuna edota bere herrialdeko justizia soziala eskatu zituen, beste alderdi batzuen artean.

Ibilbide pertsonala

Txikia zenetik, arrazakeria, esplotazioa eta diskriminazioa gertutik bizi izan ditu, Guatemalan muturreko pobrezian bizi diren indigenek pairatu duten egoera ez baita erraza. Alabaina, Rigobertaren kasua gogorretarikoa izan zen, izan ere, bortxakeria armatua zela medio, bere gurasoak, bere neba eta bere talde edo komunitateko hainbat kide galdu zituen armadak erailda.

Bestalde, 1982an "Me llamo Rigoberta Menchú y así me nació la conciencia" liburu autobiografiko ospetsua argitaratu zuen.

GIZA ESKUBIDEAK NEWS

Bi mila salaketa aurkeztu dituzte Herbeheretako elizaren aurka

Herbeheretako apaizek adingabeei ustez egindako sexu abusuak ikertzen ari den batzordeak iragarri du 1.975 salaketa jaso dituztela orotara. Herrialde horretako gotzain-batzarrak biktimei laguntzeko eraturako batzordeko presidentek, Wim Deetman ministro ohi protestanteak, txosten bat aurkeztu du abenduan, baina behin betikoa 2011ko azaroaren amaierarako espero da. Gogor kritikatu du erakundearen funtzionamendua.

Batzordea Eliza Katolikoak sortu zuen iazko martxoan, sexu abusuaren salaketak ugaritzen ari zirela ikusita.

Gauzak horrela, sexu abusuak ikertzen ari den batzordeko presidentek kritikatu egin du erakundearen funtzionamendua.



Amnistia Internazionalaren aburuz Marokok 200 saharar atxilotu ditu

Soldadu marokotarrek 200 saharar baino gehiago atxilotu zituztela dio Amnesty International gobernuz kanpoko erakundeak, Aaiunen azaroan izan ziren istiluetan. Marokoko Gobernuak ez duela ikerketarik ireki gertaeren aurrean salatu dute, ageriko gertaerak izan ziren arren.

Gertaeren inguruko txostena atera du GKEak, eta "onartezina" dela esan dute gertaturikoa. Horren harira, arduradunak epailearen aurrera eramateko deia egin dio Marokori. Gobernu kanpoko erakundeak jakitera eman duenez, istiluetan hamairu lagun hil zirela ziurtatu du. Egin dituzten ikerketen arabera bi saharar eta Marokoko segurtasun indarretako hamaika kide hil zirela adierazi dute bertako kideek.



Txinak Bakearen Nobel Sariaren alternatiba sortu du

Liu Xiaobo disidenteak Bakearen Nobel Saria irabazi eta gero, Gobernuarekin loturarik ez duela ziurtatu duen elkarte txinatar batek beste golardo bat sortu du. Aurten eman dute golardo lehen aldiz, eta Lien Chan Taiwaneko presidenteorde ohia da irabazlea.

Bakearen Konfuzio Sariaren Batzordeko presidentek, Tan Liuchangek, ziurtatu du elkarte independentea dela, Txinako Gobernuko Kultura Ministerioarekin harremanak izan baditu ere.

Sariaren lehen irabazlea Lien Chan da. 74 urtekoa da eta Taiwaneko presidenteorde izan zen 1996 eta 2000 urteen artean. Hain zuzen ere, Txinaren eta Taiwanen arteko harremanak "hobetzeko" egindako lanagatik saritu dute.

Bruselarako bidaiia

2010eko azaroaren 23an, EHuko hainbat ikasle Belgikara joan ziren, non instituzio europarrak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten, besteak beste: Europako Legebiltzarra, Batzordea edo Kontseilua. Zuzenbideko eta Lan Harremanetako ikasleek hiri belgikarrak ere bisitatu zituzten, Brujas, Brusela edo Lovaina, esate baterako. Bidaiaren antolaketa Leizaola Fundazioaren esku egon zen lehenengo aldiz, eta emaitza positiboa eta arrakastatsua izan zen.

2010eko azaroaren 24tik 27ra bitartean, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbideko eta Lan Harremanetako 31 ikasle Belgikan egon ziren. Jesus Maria de Leizaola Fundazioak antolatutako bidaiia honen helburua Europako instituzio eta administrazioak ezagutzeko da, gazteengana hurbiltzeko xedearekin; era berean,

ikasleek Europaren eta bere politikaren ikuspegi berria izan zezaketen.

Luxenburgoko Justizia Auzitegia

Azaroaren 25ean, ostegunean, ikasleak bi taldeetan banatu ziren. Alde batetik, Lan Harremanetako ikasleek Europako Legebiltzarra bisitatu zuten, gero Europar Batzordera

abiatzeko, non instituzio bien funtzionamendua eta egitura azaldu zitzairen. Bestalde, Zuzenbideko ikasleei dagokienez, Luxenburgoko Justizia Auzitegian egon ziren, eta, bertan, auzitegiko zenbait areto eta gela ikusi zituzten eta han garatzen diren ekintzen inguruko informazioa jaso zuten.

Aisialdirako tartea

Ostiraleko jardunaldiari dagokionez, azaroaren 26ko goizean taldeek banatuta jarraitu zuten; Zuzenbidekoek, kasu honetan, Europar Batzordea ezagutzeko aukera izan zuten; eta arratsalde horretan, talde biak batu ziren Europako Kontseilua bisitatzeko. Jardunaldia Lovaina hiriarren bisitare-



Zuzenbide Fakultateko ikasleak eta ekimenaren antolatzaile batzuk

kin bukatu zen, toki zoragarria eta polita, eraikin harrigarri eta bete (unibertsitate edo liburutegia, hain zuzen ere); hiria atsegina izan zen ikasle guztientzat.

Azkenik, itzulerako bidaiaren aurretik, ikasleek Bruselako kaleetatik pasatzeko aukera ere izan zuten, hiriburuko lekurik ospetsuenak eta adierazgarrienak ezagutzeko.

EHuko Zuzenbideko eta Lan Harremanetako 31 ikasle Belgikan egon ziren



Europako instituzioetara hurbiltzeko urratsa

Ikasleek bidaiia egin zuten bitartean, Leizaola Fundazioak haiekin solasaldia izateko aukera izan zuen. Banan-banan, gazte guztiei elkarriketak egin zitzaizkien, beraien iritzia jasotzeko helburuarekin, Europako instituzioen inguruko aburua, hain zuzen ere.

Oro har, ikasleek oso urrun sumatzen dituzten erakundeak direla errepikatu zuten; nahiz eta Europako Batasunaren edo Batzordearen erabakiak garrantzitsuak izan, hurbilagoak ez izatea salatzeko dute gehienbat gazteek.

Bidaiia honi esker, Lan Harremanen Eskolako eta Zuzenbide Fakultateko ikasleek erakunde publiko hauek gertutik ezagutzeko aukera izan dute, eta beraien jarrera orokorra positiboa eta pozgarria izan dela esan genezake, gehienek esperientzia errepikatuko bailukete.

Instituzioen funtzionamendua

Gaur egun, Europar Batasuna bost instituzioek gobernatzen dute.

Europar Batasuna eratu duten hitzarmenetan ondoko hurrenkeran sortu ziren: Europar Parlamentua, Europar Batasuneko Kontseilua, Europako Batzordea, Europako Justizia Epaitegia eta Europako Auditoreen Epaitegia.

Europako Batzordea EBren botere exekutiboa da, eta lege-ekimenak zein Batasuneko eguneroko jarduna ditu bere gain. Kontseiluan ez bezala, non herrikideen ordezkariak norberaren interesen alde egin behar baituten, Batzordean Batasun osoaren interesak dira defendatzekoak. Halaber, europar integrazioaren bultzatzailea ere bada Batzordea. Orain 27 komisariok osatzen dute, herrikide banakakoak, nork bere ardura politikoa desberdina duela.

EBko Parlamentuak botere legegilearen erdia osatzen du. Bost urtean behin, Europako herritarrek Parlamentuko 785 kideak hautatzen dituzte. Nahiz eta herrikideen arabera aukeratzeko dituzten, biltzarrean alderdi



Ikasle guztiek Europako Kontseilua ezagutzeko aukera izan zuten

politikoaren arabera (eta ez nazionalitatearen arabera) esertzen dira. Herrikide bakoitzak eserleku kopuru desberdina dauka, populazioaren arabera.

Politikaren hainbat arlotan, Kontseiluarekin batera onesten ditu Parlamentuak legeak eta arauak. Lisboaren Hitzarmenaren azpian, Kontseiluak eta Parlamentuak elkarrekin jorratuko dituzten arloak handituko dira, eta, hortaz, Parlamentuaren papera garrantzitsuago bilakatuko da.

Europar Legebiltzarra

Legebiltzarrek ez dauka lege-ekimenik, Batasuneko herrialdeetako parlamentu gehienek ez bezala. Europar Batasuneko "lehenengo instituzioa" den arren, Kontseiluak botere handiagoa dauka legeak onartzerakoan, hainbat arlo Kontseiluaren esku-menekoak baitira. Parlamentuak, ordea, Batasuneko aurrekontuaren gaineko kontrola dauka, eta Batzordeko komisarioen aukeraketa bertan behera utzi dezake.

Udalerrien praktika onen jardunaldiak: Bizikidetzaren Demokratikoa eta Giza Eskubideen Hezkuntza

Abenduaren 10ean Nazioarteko Giza Eskubideen eguna ospatu zela-eta, hilaren 15ean, Bilboko Euskalduna Jauregian, Eusko Jaurlaritzak bizikidetzaren demokratikoaren inguruko jardunaldia antolatu zuen. Hain zuzen ere, ekitaldiaren protagonistak udalerririk izan ziren, bai eta Giza Eskubideen Hezkuntzaren inguruan gauzatzen dituzten praktika onak ere.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak, Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez -Giza Eskubideen gaietan gobernuaren zeharkakotasunaren eta jardueraren koherentziaren sustatzaile gisa-, sustapen propioko jarduerak garatzen ditu eta beste batzuk partekatu gobernuko zenbait sailekin. Neurri handi batean, tolerantziaren eta Giza Eskubideen sustapenerako egitasmoak dira, gai horretan politikaren ahaleginak indartu eta optimizatzeko xedearekin.

Horren harira, euskal botere politikoen Bakerako eta Giza Eskubideetarako hezkuntza sustatzearen aldeko apustua egiten dute. Balio demokratikoak ere sustatzen dituzte, oinarri politiko sendo eta printzipio moral gar-denetatik abiatuz.

Giza duintasuna

Giza Eskubideek eta bakeak ezinbesteko erreferentzia osatzen dute justizia, askatasun,

berdintasun eta elkartasunaren gainean eraiki nahi den edozein eredu sozial eta politikorako. Giza duintasunaren balio gorena

Pertsona oro abiapuntu da gizarteko eskubide eta betebehar guztiak elkartzeko

eta pertsona oro abiapuntu dira gizartean gizabanako bakoitzak dituen eskubide eta betebehar guztiak elkartzeko. Hala eta guztiz ere, pertsonaren nagusitasuna

zalantzan jarri gabe, zeinaren garapen eta sustapenari bideratu behar zaizkion, finean, arkitektura soziala eta instituzionala.

Hezkuntza eskubidea

Giza Eskubideetarako Hezkuntza honela defini daiteke: "Giza Eskubideen esparruan kultura unitibertsala bat sortzera bideraturiko gaitasun, hedatze eta informazio jarduerak guztiak dira; ezagupenak eta balioak transmititzen gauzatzen dira, eta jarrerak moldatzen dituzte. Bere xedea honako hau da:

- Giza Eskubideen eta oinarriko askatasunaren errespetua ezagutzea eta indartzea.
- Giza nortasuna eta gizon-emakumeen duintasunaren zentzua erabat garatzea.
- Sexuen arteko elkar ulertzea, tolerantzia eta berdintasuna, eta pertsona, nazio, herri indigena eta talde ezberdinen (arrazakoak, nazionalak, etnikoak, erlijiosoak eta linguistikoak) arteko adiskidetasuna sustatzea.
- Pertsona guztien partaidetza eraginkorra erraztea gizarte aske batean.
- Jarduerak areagotzea Nazio Batuen bakearen mantenuan.

Bakerako hezkuntza

Bakerako Hezkuntzak, zentzu zabalean, Giza Eskubideetarako Hezkuntza hartu, eta harekin uztartzen da. Izan ere, Bakerako hezkuntza, bake positibo gisa hartuta, indarkeria zuzenaren gabezia hutsa baino askoz gehiago da. Horrela, indarkeria zuzenaren maila txikia eta justizia eta kultura adiskidetzaille maila handia erdiesten saiatzen da bakerako hezkuntza. Egitura- eta kultura-indarkeria ezabatzea bilatzen du, baita gizarte-harmonia eta guztien eskubidee-



kiko errespetua ere, lehenetasuna duten berdintasun, justizia eta elkartasun balioetan oinarrituz.

Instituzioen lankidetzaren sustatzea

Udalerriek, herritarrengandik gertu dauden instituzioak diren aldetik, elementu garrantzitsuak aurkezten dituzte prestakuntza integral baterako: sistema konplexua osatzen dute, eta, era berean, hezkuntza-agente egonkorra, plurala eta poliedrikoa, gai dena faktore ez-hezitzaileei aurre egiteko. Balio horretatik abiatuz, beharrezkoa gertatzen da instituzioen arteko lankidetzaren sustatzea eta indartzea erakunde hauekin. Izan ere, haien ahalmen hezitzailearen eta hiriko eginkizunaren bidez, herritargo demokratiko baten balioak transmititu ditzakete, espazio publikoa bizikidetzarako espazio bihurtuz.

Udalerriek elementu garrantzitsuak aurkeztu dituzte prestakuntza integralerako

Aurkezten dugun jardunaldia, Bakerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzako Euskal Plana (2008-2011) birformulatzen duen Bizikidetzaren demokratikoa eta indarkeriaren deslegitimazioa (2010-2011) dokumentuan barrukoa, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren ekintzen programen baitan dago.



Giza Eskubideek Hezkuntzan ere eragina dute

Bizitza Demokratikoa, Giza Eskubideak eta Bake Kultura

Jardunaldiaren inaugurazio ekitaldiaren harreran Ines Ibañez de Maeztu, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendaria, egon zen; berarekin batera, harrera horretan Idoia Mendiak, Herri Administrazio eta Justizia sailburu eta Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak, eta Jokin Bildarratzek, EUDELeko elkarte-buruak, parte hartu zuten.

Bildarratzen esanetan, Euskal Herriko egoera politikoa aldatzeko aukera laster azalduko da; "giro berria dator EAera; alkateek eta udalek, beraz, parte hartu beharko dute". Ildo berari jarraituz, EUDELeko elkarte-buruak galdera bat iradoki zuen: "zein izango litzateke alkateen papera gatazka egoeretan?"; beraren ustez, udalek dirudien baino ahots handiagoa dute.

Bestalde, Idoia Mendiak argitu du, Bakerako Hezkuntzaren egitasmoaren barnean, Giza Eskubideei arreta berezia ere eman behar zaiela. Terrorismoaren edo bortxakeriaren biktimei dagokienez, Mendiak dio "etorkizunera begiratzean, biktime guztiak oroitu behar ditugula, akatsak errepika ez daitezten".



José Ángel Cuerda, Gasteizko alkatea 1979tik 1999ra bitartean

Bakea eta ongizatea

Lehenengo mintzaldiari begira, José Ángel Cuerda, Gasteizko alkatea 1979tik 1999ra bitartean, izan zen hizlaria. Cuerdak ongizate egoerari buruz hitz egin zuen, betiere, bakearekin duen lotura ahaztu gabe. Al-



Bildarratz, Mendiak eta Ibañez de Maeztu, jardunaldiaren irekialdian

kate ohiaren ustez, ongizatea itxaropenaren edo prozesu positibo baten sinonimoa da, "baina horren guztiaren gainetik kultura dela esan genezake".

Bakea lortzeko beharrezkoa den urratsa berdintasuna da, eta Cuerdak hori guztia modu eskematikoan eta argian azaldu zuen bere hitzaldian: "guztiok desberdinak gara, baina berdintasuna ez ezik, integrazioa ere araua da". Ongizatearen oinarriaren inguruan, Cuerdak dio beharizan finko batzuk badaudela, "osasuna, kultura eta hezkuntza, besteak beste, edozein gizakik izan behar dituen oinarriak edo eskubideak" baitira.

Horren ondorioz, ongizatea lortzeko biderik egokiena Giza Eskubideak direla nabarmendu du Gasteizko alkate ohiak. Dena dela, Cuerdaren aburuz, bakearen etsaiak diren faktore bi egon badaude; alde batetik, intolerantzia, eta, bestetik, gizarte-bazterkeria. Horrek guztiak balioeen krisiaren gaia dakar; "beharrezkoa da gobernatzeko modu berri bat, bai eta hiritartasun eredu berria ere. Hiritarraren parte-hartzea garrantzi-

tsua den mundu batean bizi beharko ginateke", gaineratu du Cuerdak.

Eztabaida gaiak

goko Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioako kideak; Koldobike Uriartek, Eusko Jaurlaritzako Koordinazio

"Etorkizunera begiratzean, biktime guztiak oroitu behar ditugu", dio Mendiak

Ekitaldian izandako lehenengo mahai-inguruan honakoek parte hartu zuten: Jaime Hermidak, Giza Eskubideen Bule-

zuzendariak; Aitziber Irigorasek, Durangoko alkateak; eta Juana Mari Astigarragak, GFAko Lankidetzako, GGEEko eta

Berdintasuneko zuzendari nagusiak. Mahaiaren moderatzailea Teo Santos izan zen, Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzako aholkularia, eta eztabaidaren gai nagusia Giza Eskubideetarako politika publikoak izan ziren, hain zuzen ere.

Bigarren solasaldiari begira, protagonistak Cándido Reguera, Arrecifeko alkatea, eta Odón Elorza, Donostiako alkatea, izan ziren; biek ala biek estatu-ekimenen gainean eztabaidatu zuten, betiere, Bake Kultura eta Giza Eskubideen arloan oinarrituta.

Gerora, arratsaldean antolatutako mahai-ingurua eta tailerrak izan ziren, eta, horietan, hainbat udal eta erakundetako jende ugari parte hartu zuen, besteak beste: Imanol Landak, Getxoko alkateak; Pablo Isasik, Amurrioko alkateak; Jon Urienek, Zarauzko alkateak; Loli Torresek, Portugaleteko Hezkuntza eta Gazteria zinegotziak; edo Maite Katzarrok, Etxebarriko Kultura zinegotziak.

Antolatutako azken ekintza, tailerrean, hain zuzen ere, tokiko esperientziak jarri ziren mahai gainean, eta udalerrri edo lurralde bakoitzeko ekimenak eta proiektuak ezagutzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.



Odón Elorza, Cándido Reguera eta Koldobike Uriarte

Ezker abertzaleak hurrengo hauteskundeetan parte hartzeko bideari ekin dio

Euskaraz esaten dugun bezala, zenbat buru hainbat aburu; hau da, gero eta alderdi politiko edo ideologia gehiago egoten diren heinean, iritziak eta pentsaerak ere haziko dira. Horrelako zerbait gertatu da ezker abertzalearen erabaki berriarekin, datorren hauteskundeetan parte hartu nahi baitute. Alderdi politiko bakoitzak bere iritzia luzatu du, eta bakoitzaren jarrera ikertuko dugu artikulu honetan zehar

Ezker abertzalearen hurrengo helburua 2011ko udal eta foru hauteskundeetan parte hartzea da, horretarako proposamen garbia eta argia prestatzen ari da. Gauzak horrela, alderdi berriaren estatutuak urtarilerako iragarri dituzte.

Hori dela eta, azaroaren 27an aurreratu zuen moduan "zehatz-mehatz" Alderdien Legea beteko duten estatutuak izango dituela berretsi dute.

Ezker abertzaleek amaitzear den urtean Euskal Herriarentzat oso garrantzitsua dela ere esan dute, "azken hamarkadetakoa erabakirik garrantzitsuena hartu duelako, estrategia aldatzearena, bide demokratikoak erabiliz aliantzak, bat egiteak eta mobilizazio soziala bilatuz", gaineratu dute.

Politikarien iritziak

Ezker abertzalearen erabakiak jarrera desberdina piztu ditu, batez ere Eusko Legebiltzarrean ordezkariaren bat duten euskal alderdi politikoaren artean.

Esaterako, Patxi Lopez lehendakariak ez da guztiz ezkor agertu, itsaso berrietan nabigatu beharko duela adierazi baitzuen. Dena dela, "ezker abertzalea mugitzen

bada, besteak ezin gara bakoitza gure bidetik joan eta hala demokraten arteko aldeak handitu", adierazi zuen Lopezek.

Alde batetik, ezker abertzaleek jarrera onez jaso dituzte lehengo adierazpenak, baina bestalde, bigarren aipuari dagokionez, Lopezek bere hitzak sinetsgarri egin nahi baldin baditu "demokraziaren bidean urratsak egin behar dituela" gaineratu dute.

Ildo berari jarraituz, Serafin Llamas Ezker Batuko bozeramaileak ere eskaera zuzena egin dio Lopez: "Espainiako Gobernuari ezker abertzalea legezatzeko exijitu behar dio eta alderdien mahaia deitu behar du". Jon Abril Aralarreko koordinatzaileordeak, bere aldetik, herri honen egoera politikoa eta soziala hobetzen laguntzea "ahal den neurrian indar politikoen ardura" dela aitortu du.

Era berean, Abrilek Gernikako Akordioak duen garrantzia nabarmendu du, baina datorren urteko udal eta foru hauteskundeekin harremanik ez duela azaldu du. Abrilen arabera, «bat egiteko baldintzarik ez» dago egun; hala ere, ez du baztertu hauteskundearen ostean subiranista eta abertzaleen arteko el-



Ezker abertzaleak hainbat mobilizazio aurrera eraman dituzte azken urteetan

karlana instituzioetara ere zabaltea. Hortaz, Aralarren aburuz, EAK eta ezker abertzaleak ez dute egoki jokatu akordioa gizaratatzeko orduan.

"Alderdien bateraketa"

Patxi Lopez zehatza izan da bere adierazpenetan, ezker abertzalearen prozesuaren inguruan hitzegiterakoan, "ezker abertzalea mugitzen bada, beste alderdiak bateratuta egon behar" direla azpimarratu du. "Ezin dugu bakoitza bere aldetik aritu, demokraten arteko ezberdintasun-

ak handituz", gaineratu du lehendakariak.

Horren harira, Jose Antonio Pastor PSE-EEko bozeramaileak, batasuna legezatzeko soilik justizia duela adierazi du, "erabakia gus-tatu ala ez". Halere, hurrengo hauteskundeetarako zaila ikusten du Batsauna legal izatea, "ETAren lotzen dituen lotura horrekin hautsi ez duelako oraindik".

"Batasunak betebeharrak demokratikoak betetzen baditu legala izango da, eta justiziak hartzen duen erabakia hartzen duela ere, asko gustatu ala ez, onartu egin beharko dugu", esan du Pastorrek.

Ezker abertzaleak gertu ikusten du ETAREN amaiera

Rufi Etxeberria ezker abertzaleko kidea adierazi duenez, ETAK erantzun positiboa emango dio Bruselako Adierazpenean eta Gernikako Akordioan eskatzen zaionari, eta erantzun horrek "alde guztietatik egiten zaizkion eskakizunak" aseko dituela ere esan du. Horretaz gainera, ETAREN su-eten iraunkor eta egiaztagarri baten iragarpena behin-betiko armak uzteko erabakiaren atariko litzatekeela esan du. "Ezaugarri horietako su-eten bat borroka armatua behin betiko gaingintzeko borondatearen adierazgarria litzateke", gaineratu du.

Etxebarriak argitu du Gernikako Akordioko eskakizunak eu-

"Gernikako Akordioko eskakizunak gure iparra izango dira", dio Etxebarriak

ren "iparra" izango direla, "ETA eduki horietara iristen ez bada, ezker abertzaleak horiek ETARI aurkezten eta eskatzen jarraituko du", dio abertzaleak.

"Beranduegi" izan daiteke

Urte berria baino lehen ETAK armak utziko dituela adierazten ez badu, hurrengo hauteskundeetan parte hartzeko beranduegi izango dela Ezker Abertzalearentzat esan du Joseba Egibar EAJko GBBko presidentek.

Egibarren aburuz, ezker abertzaleak legala izan nahi badu, legea betetzen duen estatutuak izateaz gain, "gainontzekook egiten



Rufi Etxeberria, ezker abertzaleko kidea

dugun moduan, portaera koherentea izan behar dute". Egoerarik egokiena, ETAREN behin betiko armen uztea izango liteke.

ETAren su-etenak dakarren iritzi sorta

Irailean ezagutu zen ETAren armak uzteko asmoa, eta, aldi berean, talde terroristaren tregoa edo su-etena. ETAK jakinarazi zuen eraso-ekintza armaturik ez burutzeko erabakia hartu zuela. Hain zuzen ere, ETAren helburua prozesu demokratikoa abiaraztea izan zen, "Espainiako gobernuak borondatea izanez gero". Euskadiko eta Espainiako alderdi politikoek adierazpen eta su-eten honen inguruan hitz egiteko aukera izan dute hilabete hauetan



Irailean talde terroristak iragarritako su-etenaren ostean, Gara egunkariak ETAKo bi kideri egindako elkarriketa kaleratu zen, non honakoa esaten zuten: "helburua gatazka politikoari konponbide demokratikoa bilatzea da; zauria betiko itxi behar dugu, horrek denon erantzukizuna eskatzen baitu".

Horren harira, polo soberanistak irteera baketsua gauzatu zuen, eta, bertan, ETAKo kideek prozesua bideragarria izateko jarraitu beharreko baldintzak zerrendatu zituzten.

"Eragile guztiak baldintza berberetan aritu ahal izateko beharrezko neurriak hartzea, eskubide zibil eta politikoak ezartzea, euskal preso politikoei jarritako zigor gehigarriak baliorik gabe uztea, eta, orokorrean, presio, esku-sartze eta indarkeria egoera desaktibatzea", esaten zuen idatziak, besteak beste.

Enpresaburuek eszeptizismo handia mantentzen dute adierazpenen ostean

Talde terroristako kideek "ETAK ez duela protagonismo berezirik nahi" aitortu dute; "prozesua elikatzeke, sendotzeke eta gorpuzteke ekarpen iraunkorra egingo dugu".

Bide baketsua

Ezker abertzalearen jarrera gero eta "ireki-agoa" izaten ari dela baieztatzen dute beraien azkeneko adierazpenek. Hain zuzen ere, Arnaldo Otegi legez kanpo dagoen Bata-suna alderdiko bozeramaile ohiak "bide baketsuaren" aldeko apustua egiten duela baieztatu du, eta, proiektu politiko bat inposatzeko, indarkeriaren erabilera arbuiatu du.

Bestalde, Iñaki Oyarzabal Euskadiko PPko idazkari orokorrak adierazi duenez, "terrorismoaren gaitzespen elektoralera edo hauteskundeetarako su-etena ez da nahikoa izango". Beraren hitzetan, PSE-PP akordioari esker, "ETA eta bere ingurua inoiz baino ahulago daude". Horregatik, Espainiako Gobernuari eta Jaurlaritzari dei egin die, "hizkuntza bikoitzekin eta anbiguotasunarekin" bukatzeko, ETARI "oxigenoa" ez emateko eta gizarteari itxaropenik ez emateko.

Alderdi politikoaren ardurak

Eusko Alkartasuna (EA) alderdiak talde edo sektore bakoitzaren ardurak finkatu ditu; "Euskal Herriaren etorkizunaren diseinuan alde teknikoak baino ez dira ETAren ardura izango, eta alderdi politikoei dagokie euskal gatazkaren konponbidea diseinatzea", esan du Pello Urizar Eusko Alkartasuneko idazkari nagusiak.

"ETA eztabaida politikoaren erdigunean jartzea, independentismoaren etorkizuna erakunde armatuaren jardunaren menpe

egotea eta hauteskundearen epailea bilakatzea EAk eta euskal gizarteak ukatzen dioten era-

ETAK aitortu du ez duela protagonismo berezirik nahi

gile politiko estatusa ematea da", iritzi dio.

Ildo berari jarraituz, Urizarren aburuz, EAren etorkizunaren diseinuan alde teknikoak baino ez dira ETAren ardura izango, eta alderdi politikoei dagokie "euskal gatazkaren konponbidea diseinatzea".

Enpresaburuen ikuspegia

Horrez gain, alderdi politikoak ez dira ETAren amaierari buruz hitz egin duten bakarrak, enpresaburuen taldeek eta elkarteek ere ikuspegi kolektiboa plazaratu baitute.

José Miguel Ayerza Adegiko idazkari nagusiak adierazi du "enpresaburuek eszeptizismo osasuntsua dutela ustez berria den egoera honen aurrean". Izan ere, ETAK eraso-ekintza armatuak eten baditu ere, "estortsio, mehatxu eta xantaia egiten jarraitzen du", ohartarazi du Ayerzak.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako patronalaren buruak etengabeko eraso egoera horretan inbertitzen eta lanpostuak sortzen jarraitzen duten enpresaburuak aldarrikatu ditu.

Jaurlaritzaren jarrera positiboa da tregoarean aurrean

Patxi López lehendakariak, ETAK su-etena iragarri ondoren, adierazpen pozgarriak eta baikorrak eskaini zituen, "behin betiko askatasuna hatz puntekin ukitzen" ari garela esan baitzuen.

Lehendakariaren esanetan, "ETAren terrorismoaren kontrako borroka irabaztear gaude; gure herriko kaleek eta plazek askatasuna berreskuratu dute. Indarkeriazaleen inpunitatea amaitu egin da. Toki publikoak totalitarismoaren eta terrorearen esku bahituta egon dira luzaroan, baina demokraten esku daude gaur egun", azaldu du.

Euskal gizarteari dagokionez, Lópezen ustez, biztanleek terrorismoari eta kale indarkeriari aurre egiteko "aurrerapauso garrantzitsua" eman dute. "Euskal gizarteak



Nahiz eta Lópezen jarrera baikorra izan, ez dago erabat ziur

eskatzen zuen, eta, orain, gizartearen gehiengo zabalak babesten du Jaurlaritzaren terrorismoaren kontrako politika. Lehenengo hilabeteetan batzuek ulertzen ez zuten

arren eta kritikak jaso bagenituen ere, ia alderdi guztiek egin dute bat esfortzu kolektibo honekin", gaineratu du.

Behin betiko desagertzearen zain

Dena dela, Lehendakariak esan du "denoi" gustatuko litzaigukeela ETAK desagertzea erabaki duela entzutea. "Baina azken agiriek diote ez dela desagertu, ez duela indarkeria baztertu eta gure etorkizuna baldintzatzen jarraitu nahi duela", azpimarratu du.

Bestalde, Lópezek dio "ETAK, beste behin ere, nahastu egin nahi" gaituela; Lehendakariaren aburuz, "guk eman ditzagun berak eman nahi ez dituen pausoak, baina ez gara amarruan eroriko".

Indarkeria sexistari aurre egiteko aldarrikapenak eta proposamenak

Joan den azaroaren 25ean emakumeen aurkako bortxakeria errotik desagerrarazteko nazioarteko eguna ospatu zen. Urtero gertatzen den bezala, nagusiki altxatu ziren elkarteak feministak edo genero berdintasuna aldarrikatzen dutenak izan ziren. Egun horretan mobilizatu ziren talde, elkarte eta gizabanako bakoitzaren helburua izan zen emakumeek bizitzako edozein arlotan jasaten duten bortxakeria salatzea eta horren kontrako asmo sendoa erakustea

Gizonek emakumeen aurka eragiten duten bortxakeria hainbat izaera eta baldintzatarik emakumeengana iristen da, herrialdeak gainditzen ditu eta ez du diru-sarrera eta heziketa-mailarik errespetatzen.

Azken urteetan egindako lanari esker lortu diren emaitzak positiboak eta pozgarriak direla esan genezake; harreman afektibotatik oinarritutako indarkeriaren aurrean begiak zabaltzea, behintzat, lorpen esanguratsuenetakoa da. Dena den, zoritxarrez, horrek indarkeria moten fragmentazioa ekartzeaz gain, indarkeria sexista bere osotasunean ikusezin ere egin du.

Ildo berari jarraituz, Mugarik Gabe Koordinakunde Feministak adierazi du emakumeen aurka eragiten den bortxakeria kontu publikoa dela, eta gizarte osoaren aktibazioa eta inplikazioa eskatzen dituela: emakumezkoena, gizonezkoena, komunikabideena eta erakunde publiko eta pribatu guztiena, hain zuzen ere. Hots, xede nagusia "arazoari errotik heltzea" da.

Elkarteek eskatzen dutena

Mugarik Gabek, genero berdintasuna aldarrikatzen duten beste elkarte edo talde batzuen artean,



Azaroaren 25ean emakumeenganako bortxakeriaren aurkako eguna ospatu zen

zerrendatu ditu zehazki zeintzuk izan diren jarraitu beharreko urratsak sexu indarkeria ahultzeko. Elkarte hauek exijitutakoa honako hau da:

- Genero indarkeriako kasuen arduradunak epaitegiek beraien gain hartu behar dute emakumeek jasaten dituzten indarkeria sexista kasu guztien arduradunak.
- Jabekuntza maila individual nahiz kolektiboan garatzeko proze-

suei bultzada ematea eta emakumeen arteko antolaketa eta talde eraketak sustatzea indarkeriari aurre egiteko giltzarri gisa.

- Gizonen erreakzioa eta parte-hartzea. Gehienbat, gure gizartean emakumeen aurka eragiten den bortxakeria matxista salatzean datza, edota sexu bat besteari gaitz gaitz dagoela oinarritzat ez duen gizonezko-tasun eredu berriak sortzean.
- Gizartearen eta herritarren he-



ziketan erantzukizuna edo inplikazioa izatea. Emakumeen aurkako bortxakeria sorrarazten duten kasuak errotik deuseztatzeko eta errespetu eta berdintasunezko harremanak sustatzeko helburuarekin.

- Komunikabideen konpromisoa. Irudi, lengoia eta eduki sexistak aldaketan duten erantzukizunagatik batik bat.
- Erakunde publikoen estrategia argi eta zehatzak. Herri administrazioaren inplikazioa bortxakeria patriarkalaren aurkako borrokan, babeserako eta salaketarako behar adinako baliabideak erabiltzea.

Sindikatuaren ahotsa

Munduko emakumeen %70ek gutxienez bere bizitzan behin bortizkeria pairatu izan du. Nazioarteko erakunde ezagunek emandako datu beldurgarri hau kontuan izanik eta Euskal Herrian aurten bortizkeria sexistak sei emakume hil dituela jakinda, Euskadiko gehiengo sindikalak kalera ateratzeko aukera aprobetxatu zuen joan den azaroaren 25ean, emakumeen kontrako bortxaketa guztiak desagerrarazteko nazioarteko egunean, alegia.

Aldarrikapen eta borroka egun horretan gaitz hau lan munduan ere hedatuta dagoela azpimarratu zuten sindikatuek (ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRUK, hain zuzen ere). "Batuetan nabarmen, besteetan ezkerreko gertatzen den bazterketa edo bortxakeria da", azaldu zuten

sindikatuak; horren harira, gehiengo sindikalak hauex gaineratu zuen: "hainbat adierazpide ditu emakumeen kontrako bortizkeriak, emakume izate hutsagatik erabiltzen dena".

Aipatutako EAEko sindikatuen aburuz, doikuntza estrukturalako planek dakarten gizarte-gastu murriztuak ahuldu egiten du.

Aldarrikapena

Bortizkeria sexista erazteko oldar sindikal feminista aldarrikatu du euskal gehiengo sindikalak. Lan-harreman eta gizarte-babeseko euskal esparruaren aitortza eta itzalean, zeinak oinarritzat emakume eta gizonen aukera berdintasuna izango duen.

Lehenengo eta behin, sindikatuek bortizkeriarik, hertsapenik

eta jazarpen sexual edo sexistarik gabeko lan mundu baten aldeko eskaera egin dute, emakumeen aurkako bortizkeriarik gabea, nabarmena edo ezkutukoia izanda ere.

Bestalde, emakumeek lan munduan dituzten baldintzak duintzea eta diskriminazio oro desagerraraztea, batik bat kolektiborik ahulenei arreta eman. Bestelako enplegu politika bat ere exijitu dute, EAEko langileen beharrezanetan oinarrituta dagoena.

Ugaltzea interes publikoko gaitz hartzea, eta emakume zein gizonezkoen sexu-eskubideen aldarrikapena eskatu dute. Gizarte babeseko sistema justu eta solidarioa ere bermatu nahi dute, gizarte-babesa, hain zuzen ere.

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIARI EZ



NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

Lan eremuari dagokionez, lantokietan zinezko berdintasun planak exijitu dituzte, bai eta lan-antolakuntzaren kultura aldatzea ere, "ardurak benetan partekatutak izan daitezzen eta erantzukidetasuna lor dezagun".



Mundubat

Hirugarren Mundua eta Bakea

Mundubat alderdi politikoekin, sindikatuekin, elizekin edo beste erakunde politiko edo erlijiosoekin inolako menpetasunik edo loturarik ez duen irabazi-asmorik gabeko erakunde ez-konfesionala da.

Bazkideen Batzordeak Gobernu Organoa edo Patronatua bermatu eta aholkatzen duela ezartzen da eta, Giza eta finantza baliabideak eraginkortasunez, zorrotasunez eta gardentasunez kudeatuko direla bermatzen du Patronatuak. Aldi berean, lankidetzari buruz dugun kontzeptuan oinarritzko osagaia den Sare eta Itunen politika ezartzen du Patronatuak.

Fundazioaren zeregina

Garapenerako lankidetzari dagokionez, tokian tokiko erakundeekin edo kontraparteeekin batera zenbait ekimen garatzen dituzte, herritarren antolamendua sendotzeko eta gizakien garapena sustatzeko. Horretarako, erkidegoetako zenbait proiektu bultzatzen dira Mundubat-en. Besteak beste, honako herrialde hauek lan egiten dute: El Salvador, Guatemala, Palestina, Kolonbia, Brasil, Kuba edo Mexikon.

Fundazioak garrantzi handia ematen dio laguntza humanitarioarekin lotura duen guztiari. Horregatik, laguntza teknikoaren bidez, bete-betean parte hartzen du larrialdietarako ekintzetan. Unean-unean biztanleak arriskuan jartzen dituzten premiazko egoera larri-larriak konpontzen ahalgintzea du helburu.

GGEEen babesa eta sustapena

Giza Eskubideen babesean eta sustapenean oinarrituta, gutxiengo etnikoen eta biztanle zaugarrienen eskubideei ez ezik, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri ere lehen-tasun berezia ematen diete.

Horretaz gainera, Hegoaldeko herrialdeen errealitatea nolakoa den erakusten saiatzen dira. Elkartasunean eta konpromiso aktiboan oinarritutako balio berrien kultura sustatzen baitute, nazioarteko antolamendua aldatzeko.

Tokian tokiko erakundeekin zenbait ekimen garatzen dituzte

Elkartasunerako sare erabilgarriak eratzeke laguntza ere ematen dute, eta, horretarako, iparraldeko eta hegoaldeko gizarte-eragileen arteko bitartekari-lanak egiten dituzte. Ahalegin horretan, ezinbestekoa da boluntarioek erakundeetan gauzatzen duten lana.

Ikuspegi orokorra

Borondateak eta baliabideak batzen dituen Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea (GGKE) izan nahi dute, gizarte-mugimenduen sare handia sendotzeko eta zeregin partekatua betetzeko. Horretarako, gizarte-erakundeen, erkidegoen, toki-administrazioen, estatuen eta nazioarteko GGKEen arteko sinergiak uztartuko dituzte.

Kanpoan zer dagoen kontuan hartuta, bere ideiei, gaitasunei eta subiranotasunari eusten dien GGKEen eredu jarraitu nahi dute. Horren harira, baliabide ekonomikoak dibertsifikatzea beraien helburuen artean aurkitzen da, besteak beste. Euren inguruan genero politikari dagokionez, erreferentziazko GGKEa izan nahi dute, hain zuzen.



Jarduerak eta baloreak

Elkartasuna, konpromisoa, giza eta zuzendaritza taldearenganako konfiantza, kultura artekotasuna, barruko partaidetza, kudeaketa gardena, giza kapital handia, prozesuen errespetua, genero-berdintasuna, baliabide ekonomikoak erabiltzeko zorrotasuna eta ildeologia eta filosofia partekatua. Izendatuta atal edo ezaugarri horiek guztiak Mundubat Fundazioaren baloreen artean aurkitzen dira, eta bere helburu nagusiak edo beraien lehentasunak direla esan genezake.

